



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 24a

16. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, unibertsitate-ikasketetarako 2016-2017 ikasturterako beka-deialdiari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (3. or.).
- Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak azaroaren 21ean emandako 1054/2016 Ebazpenean jasotzen den diru-laguntzen deialdiari buruzkoa. María Teresa Sáez Barrao andre-ak egin du (3. or.).
- Galdera, Errepideen Kontserbaziorako Planeko kontratuen lizitazioari buruzkoa. Carlos Couso Chamarro jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, jakitekoa ea Gobernuak nahikotzat jotzen dituen berrikuntza Nafarroara erakarri eta bertan sustatze aldera egiten ari den ekintzak eta ahaleginak. Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, eremu ez-euskaldunean D ereduko erreferentzia-ikastetxeak zehazteko irizpideari buruzkoa. Javier García Jiménez jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, eremu ez-euskalduneko D ereduko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek eredu horretako eskar-mentua izan behar dutela ezartzen duen foru aginduaren ondorioei buruzkoa. Javier García Jiménez jau-nak egin du (6. or.).
- Galdera, jakitekoa zer asmo dagoen estatusunean dauden enpresentzako alerta goiztiarreko sistema bat ezartzeari dagokionez, Gobernuari egoeraren berri eta jarduteko modua emanen diona. Carlos Couso Cha-marro jaunak egin du (6. or.).
- Galdera, oinarritzko osasun-laguntza, laguntza jarraitua eta larrialdikoa birmoldatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (7. or.).
- Galdera, farmazia-koordainketa 18.000 euro baino gutxiagoko errentak dituzten pertsonentzat kendu edo, kasua bada, arautzeko proposamenari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (8. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuaren kudeaketari buruzkoa, Esako urtegiko mazelean erregistratu diren mugimenduak direla eta. David Anaut Peña jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Sakanako enpresetan lanpostu kualifikatuak betetzeko dagoen zailtasunari irtenbidea ematearren Nafarroako Gobernuak ezarriko dituen neurriei buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (9. or.).

- Galdera, Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiaren autoari dagokionez hartuko diren neurriei buruzkoa; auto horren bidez, ez da Osasuna delitu fiskalarengatik inputatuko. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (10. or.).
- Galdera, egungo lege eta eskumen esparruaren inguruko azterlan juridiko eta ekonomikoaren prestatze-egoerari buruzkoa, eta Foruaren Hobekuntzaren erreformari lotutako etorkizunari begirako proposamenei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (11. or.).
- Galdera, Esako urtegiaren egungo egoeraren gainean eta urtegia handitzeko planen eta obren gainean Gobernuak dakienari buruzkoa eta haren segurtasuna bermatzeko abiarazitako ekintzei buruzkoa. María Luisa De Simón Caballero andreak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak lehendakariak autonomia erkidegoetako lehendakariaren batzarrean egingako proposamenaren ildo nagusiei buruzkoa, zeinean “hezkuntzaren aldeko itun bat Espainian” proposatzen baitzuen. José Javier Esparza Abaurrea jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, jakitekoa Gobernuak inolako ekintza judizialik abiarazteko asmorik ote duen iragan sanferminetan emakume gazte baten bortxaketan ustez parte hartu zuen pertsona baten aldeko pankartak Sadar futbol-zelaian erakutsiak izan ondoren. Laura Lucía Pérez Ruano andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuak Garraioaren Hirian 48,3 milioi euro ordaintzera kondenatzen duen epaia dela eta, Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa. Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuan izandako azken gertaerak ikusita, Hezkuntzako kontseilariarengan dagoen konfiantzari buruzkoa. Ana María Beltrán Villalba andreak egin du (14. or.).
- Galdera, Osasun Departamentuaren 2015eko aurrekontuan izandako desbideratzeari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).
- Galdera, Mutiloako ikastetxea handitu ordez ikastetxe berri bat eraikitzea erabakitzeak arrazoiei buruzkoa. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (15. or.).
- Galdera, Ministerioak azken ebaluazioak direla-eta deitutako bilerara ez joateko Hezkuntzako kontseilariak izan zuen arrazoia buruzkoa. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (15. or.).
- Galdera, Hezkuntza Departamentuak NUParen Tuterako campuserako dituen planei buruzkoa. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (16. or.).
- Galdera, Cintruenigoko Bigarren Hezkuntzako institutuari buruzkoa. Hezkuntza Batzordean izapidetzea (16. or.).
- Galdera, Nafarroako 2017-2019 aldiko II. Ekintzailtza Planak jasotzen dituen ekintzei eta helburuei buruzkoa. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea (16. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, unibertsitate-ikasketetarako 2016-2017 ikasturterako beka-deialdiari buruzkoa.

ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, unibertsitate-ikasketetarako 2016-2017 ikasturterako beka-deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentutaldeko Alberto Catalán Higuera sek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

– Hezkuntza Departamentuak ba al du asmorik unibertsitate-ikasketetarako 2016-2017 ikasturterako beka-deialdian aldaketaren bat egiteko, errenta txikia daukatenek pairatzen dituzten desabantaila-egoerak zuzentze aldera?

– Zein? Zein epetan?

Corellan, 2017ko urtarrilaren 16an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak azaroaren 21ean emandako 1054/2016 Ebazpenean jasotzen den diru-laguntzen deialdiari buruzkoa.

MARÍA TERESA SÁEZ BARRAO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Teresa Sáez Barrao andreak aurkeztutako galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak azaroaren 21ean emandako

1054/2016 Ebazpenean jasotzen den diru-laguntzen deialdiari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Teresa Sáez Barrao andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen azaroaren 21eko 1054/2016 Ebazpenaren bidez onetsi zen farmazia zerbitzua eta/edo farmazia zerbitzu bati lotutako medikamentuen biltegia duten egoitza (zentro

soziosanitario) pribatuentzako diru-laguntzen deialdia, 2017., 2018., 2019. eta 2020. urteetako arreta farmazeutikoaren funtzionamendu gastuak finantzatzeko. Guztizko zenbatekoa 5.456.000 eurokoa da, lau urteetarako.

Zer zentro atxiki zaizkio? Zeintzuk dira zenbatekoak?

Osasun Departamentuaren ustez, zerbitzu hori ezin du zuzenean eman?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Teresa Sáez Barrao

Galdera, Errepideen Kontserbaziorako Planeko kontratuen lizitazioari buruzkoa.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamarro jaunak aurkeztutako galdera, Errepideen Kontserbaziorako Planeko kontratuen lizitazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamarro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan

xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Errepideen Kontserbaziorako Planeko kontratuen lizitazioari dagokionez:

– Zer dela-eta bereizten dira bi multzotan kontratu lizitatuak (alde batetik, urte anitzekoak; beste alde batetik, urte bakarrekoak)?

– Kontratazio-agirietan izaera sozialeko edo ingurumenaren arloko klausulak ezartzen al dira kontratuak betetzeko, Kontratu Publikoei buruzko Foru Legeko 49. artikuluan ezarritakoari jarraikiz?

– Kontratazio-agirietan zer aurreikuspen ezartzen dira kontratu horiek betetzean gertatzen diren ohiko azpikontratazio-kateei dagokienez?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 17an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, jakitekoa ea Gobernuak nahikotzat jotzen dituen berrikuntza Nafarroara erakarri eta bertan sustatze aldera egiten ari den ekintzak eta ahaleginak.

GUZMÁN MIGUEL GARMENDIA PÉREZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, jakitekoa ea Gobernuak nahikotzat jotzen dituen berrikuntza Nafarroara erakarri eta bertan sustatze aldera egiten ari den ekintzak eta ahaleginak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-talderari atxikitako Guzmán Garmendia Pérezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dakion:

Nafarroako Gobernuaren ustez, egin behar-koa eta behar adina ahalegin egiten ari al da Nafarroan berrikuntza erakartzeko eta sustatzeko, bai arlo publikoan bai arlo pribatuan?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 18an

Foru parlamentaria: Guzmán Garmendia Pérez

Galdera, eremu ez-euskaldunean D ereduko erreferentzia-ikastetxeak zehazteko irizpideari buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, eremu ez-euskaldunean D ereduko erreferentzia-ikastetxeak zehazteko irizpideari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentua zer irizpidetan oinarritu da eremu ez-euskaldunean D ereduko erreferentzia-ikastetxeak zehazteko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, eremu ez-euskalduneko D ereduko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek eredu horretako eskarmentua izan behar dutela ezartzen duen foru aginduaren ondorioei buruzkoa.

JAVIER GARCÍA JIMÉNEZ JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Javier García Jiménez jaunak aurkeztutako galdera, eremu ez-euskalduneko D ereduko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek eredu horretako eskarmentua izan behar dutela ezartzen duen foru aginduaren ondorioei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Javier García Jiménez jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Zer ondorio izanen ditu eremu ez-euskalduneko D ereduko ikastetxeetako zuzendaritza-taldeek eredu horretako aurretiazko eskarmentua izan behar dutela ezartzen duen foru aginduak?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Javier García Jiménez

Galdera, jakitekoa zer asmo dagoen estutasunean dauden enpresentzako alerta goiztiarreko sistema bat ezartzeari dagokionez, Gobernuari egoeraren berri eta jarduteko modua emanen diona.

CARLOS COUSO CHAMARRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Carlos Couso Chamorro jaunak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer asmo dagoen estutasunean dauden enpresentzako alerta goiztiarreko sistema bat ezartzeari dagokionez, Gobernuari egoeraren berri eta jarduteko modua emanen diona.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Carlos Couso Chamorro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Garapen Ekonomikorako kontseilariak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan.

Nafarroako Gobernurako programa-akordioko 3. blokeak (Ekonomia, Enplegua, Zerga Sistema) epe motzean hartu beharreko hainbat neurri aurreikusten zuen. Zehazki, neurri horiei buruzko 1.2 atalean jasotzen da "zailtasunak dituzten enpresen egoeraz ohartarazteko sistema bat ezartzea, Gobernuak garaiz izan dezan egoeraren berri eta neurriak hartu ahal izan ditzan."

Hori dela-eta, Nafarroako Gobernuak zer aurrerabide eta aurreikuspen darabil sistema horren ezarpenari dagokionez? Sistema horrek, zailtasun ekonomikoak dituzten enpresen kasuetan ez ezik, lan-gatazka hasiberrietan nahiz langileek erakundeei ezagutarazi nahi dizkieten beste-

lako kasu batzuetan ere funtzionatu ahal izatea aurreikusten al da?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Carlos Couso Chamarro

Galdera, oinarrizko osasun-laguntza, laguntza jarraitua eta larrialdikoa birmoldatzeari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, oinarrizko osasun-laguntza, laguntza jarraitua eta larrialdikoa birmoldatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak honako galdera hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Osasun arloko programa-akordioak jasotzen du lehen mailako arretaren, arreta jarraituaren eta larrialdietako arretaren erreformari helduko zaiola, arreta berezia jarrita landaguneetan. Hamabigarren puntuak honako hau dio hitzez hitz:

“Lehen mailako arretaren, arreta jarraituaren eta larrialdietako arretaren erreformari heltzea, herritar guztiei osasun-arretaren eskuragarritasuna, ekitatea eta kalitatea bermatzeko, urrun dauden edo iristen zailak diren landa-inguruneen espezifikotasuna kontuan izanik. Alde horretatik, toki-entitateek, profesionalek, sindikatuak eta profesionalen elkarteek ere hartuko dute parte prozesuan, eremu bakoitzeko beharren diagnostikoan oinarrituz. “

Gaia premiazkoa da; izan ere, aurreko legegintzaldian onetsi zen 2/2013 Foru Legea, otsailaren 14koa, osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoari buruzkoa, zeinak artikulua bakarria baitzuen, UPN-ren lehengo gobernuak bete ez zuena. Zehazki, legeak honako hau agintzen zion Gobernuari:

“Artikulu bakarria

1. Nafarroako Gobernuak Osasun Departamentuak Nafarroako landa eremuetako populazioaren beharri buruzko ebaluazio bat egingen du, osasun-arretari eta osasun-arreta jarraitu eta larrialdikoaren ereduaren inefizientziei dagokienez, eta oinarrizko osasun-laguntzako osasun-etxeen eta osasun-laguntza jarraitu eta larrialdikoaren modalitateen funtzionamenduari buruzko plan bat taxutuko du osasun arloko profesionalen, toki entitateen eta arlo horrekin zerikusia duten eragile sozialen parte-hartzearekin, eta ahal den adostasunik handiena bilatuko du.

2. Nafarroako Gobernuak gehienez ere urtebeteko epean igorriko du aipatu plan hori Nafarroako Parlamentura, eztabaidatu eta onesteko”

Horrenbestez, honako galdera hauek egiten dizkiogu Nafarroako Gobernuari:

Zein da lehen mailako arretaren, arreta jarraituaren eta larrialdietako arretaren erreformari heltze horren betetze-maila?

– Egoeraren diagnostikorik egin al da?

– Eremu ezberdinetako profesionalekin eta toki entitateekin lanean ari al zarete?

– Laguntza eta funtzionamendu plan zehatzik jorratzen ari al zarete?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, farmazia-koordainketa 18.000 euro baino gutxiagoko errentak dituzten pertsonentzat kendu edo, kasua bada, arautzeko proposamenari buruzkoa.

BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkeztutako galdera, farmazia-koordainketa 18.000 euro baino gutxiagoko errentak dituzten pertsonentzat kendu edo, kasua bada, arautzeko proposamenari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak honako galdera hau aurkezten du, Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez jaunak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2016ko ekainaren 23ko Osoko Bilkuran, Osasuneko kontseilari Fernando Domínguez jaunak azaldu zuen zer urrats egin ziren ordura arte eta zer proposamen zerabilten gogoan 18.000 euro baino gutxiagoko errentak dituzten pertsonak farmazia-koordainketatik salbuesteko, 2015eko azaroan onetsitako mozio bat betez.

Bere erantzunean, jorratzen ari ziren ildoak azaldu zituen. Lehenik eta behin, neurriez baliatu ahalko lirateke, oro har, 18.000 euro baino gutxiagoko errentak dituzten pertsonak, pen-

tsiodunak izan nahiz jardunean egon, eta 242.000 balizko onuradun leudeke.

Bere azalpenean orobat aipatu zuen bi tarte ezberdin proposatuko zirela; lehenengoa, urtean 6.000 euro baino gutxiagoko errentena, zeinek hilean 2 euro ordainduko bailukete gehienez ere; eta bigarrena, 6.000 eurotik 18.000 euro bitarteko errentena, zeinek hilean 8 euro ordainduko bailukete gehienez ere.

Amaitzeko, azaldu zuen diru-laguntzen formula zeukatela gogoan, eta ez prestazio osagarri batena.

Bestalde, orain dela gutxi 2017rako onetsi diren aurrekontuetan handitu egin da, zuzenketa bati esker, xede horretarako kontu-saila, "Koordainketa arautzea" izenekoa, milioi bat eurokoa izateraino.

Jada zazpi hilabete joan direnez azken proposamenari azken ukituak ematen ari zitzaizkiola esan zuenetik, honako galdera hau aurkezten dugu:

Zein da farmazia-koordainketa 18.000 euro baino gutxiagoko errentak dituzten pertsonen kendu edo, kasua bada, arautzeko azken proposamena?

– Zein izanen da azken finean baliatuko den formula?

– Noiz hasiko da ezartzen?

– Aldez aurreko zer urrats falta dira egiteko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

Galdera, Nafarroako Gobernuaren kudeaketari buruzkoa, Esako urtegiako mazelean erregistratu diren mugimenduak direla eta.

DAVID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea David Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroako Gobernuaren kudeaketari buruzkoa, Esako urtegiako mazelean erregistratu diren mugimenduak direla eta.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Dabid Anaut Peña jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ahozko galdera hau aurkezten du, 2017ko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran Nafarroako Gobernuak erantzun diezaion.

Azken asteotan Esako urtegiako mazelean erregistratu diren mugimenduaren inguruko albisteak argitaratu dira hedabideetan. Confederación Hidrográfica del Ebro (CHE) erakundearen 2016ko azaroko txostenaren arabera, magal horretan mugimenduak antzeman dira, urteko 12 milimetro-rainoko mugimenduak hain zuzen ere, eta 47 puntutan erregistratuta.

Zenbait elkarteren eta adituren ustez, mugimendu horiek guztiak ikusirik, Esa urtegiaren inguruko herrietan arrisku egoerak bere horretan jarraitzen du, besteak beste ez delako lortu maze-laren mugimendua gelditzea eta egonkortzea.

Argitaratutako datu horiek ezagututa, eta datu nahiz mugimendu horiek inguru horretako herritarrengan eta hainbat aditurengan eragin duen kezka eta ezinegona kontuan hartuta, zein da Nafarroako Gobernuak une honetan gai honetan egiten ari den kudeaketa eta zein dira egiten dituen urratsak?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Dabid Anaut Peña

Galdera, Sakanako enpresetan lanpostu kualifikatuak betetzeko dagoen zailtasunari irtenbidea ematearren Nafarroako Gobernuak ezarriko dituen neurriei buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, Sakanako enpresetan lanpostu kualifikatuak betetzeko dagoen zailtasunari irtenbidea ematearren Nafarroako Gobernuak ezarriko dituen neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako ahozko galdera hau aurkezten du, Ayerdi lehendakariordeak Garapen Ekonomikorako Batzordean erantzun dezan:

Jakin ondoren Sakanako zenbait enpresak arazoak dauzkatela lanpostu kualifikatuak betetzeko, eta kontuan hartuta eskualde hori dela Nafarroan langabezia-tasarik handieneko eskualdeetako bat, Nafarroako Gobernuak zer neurri ezarriko ditu arazo horiek konpontzeko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 19an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

Galdera, Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiaren autoari dagokionez hartuko diren neurriei buruzkoa; auto horren bidez, ez da Osasuna delitu fiskalarengatik inputatuko.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako galdera, Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiaren autoari dagokionez hartuko diren neurriei buruzkoa; auto horren bidez, ez da Osasuna delitu fiskalarengatik inputatuko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak Ogasuneko kontseilariak urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Iruñeko 3. Instrukzio Epaitegiak orain dela gutxi emandako auto baten bidez erabaki du Osasuna delitu fiskalarengatik ez inputatzea. Ogasunak zer irizpidide darabil auto horri dagokionez? Zer neurri hartuko ditu, hori dela-eta?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 20an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, egungo lege eta eskumen esparruaren inguruko azterlan juridiko eta ekonomikoaren prestatze-egoerari buruzkoa, eta Foruaren Hobekuntzaren erreformari lotutako etorkizunari begirako proposamenei buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, egungo lege eta eskumen esparruaren inguruko azterlan juridiko eta ekonomikoaren prestatze-egoerari buruzkoa, eta Foruaren Hobekuntzaren erreformari lotutako etorkizunari begirako proposamenei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dio Legebiltzarreko Mahaiari, 2017ko urtarrilaren 26an egin beharreko kontroleko Osoko Bilkuran izapidetzeko:

Erkidegoaren egoerari buruzko azken eztabaidan, Parlamentuak honako erabaki hau onetsi zuen, gehiengoz:

“1.- Nafarroako Parlamentuak bere konpromisoa adierazten du, herritarren parte-hartzean sakontzearen eta Nafarroako herritarren erabaki-

ahalmena aitortzeko neurriak ezartzearen aldekoa.

2.- Nafarroako Parlamentuak prozesu parte-hartzaile eta parlamentario bat irekitzeko konpromisoa hartzen du bere gain; xedea da Foruaren Hobekuntza aldatzea, Nafarroaren estatus politikoa zehazteko, eskumen berriak sartzeko eta eskubide sozialen aitorpenean sakontzeko, esku-bide horiei ahal den lege-mailarik handiena emanez, benetan bete daitezela, eta aldaketa bera herritarren berrespenaren menean jarritz.

3.- Programa-akordioan jasotako helburu horretarako, Nafarroako Parlamentuak agertzen du bere borondatea dela sei hilabeteko epean Nafarroako Gobernuak egungo lege eta eskumen esparruari buruzko azterlan juridiko eta ekonomiko bat prestatzea, esparru horrek dituen mugak eta aukerak oinarri hartuta, baita Hobekuntzaren erreformari lotutako etorkizunari begirako proposamenak egitea ere.”

Erabaki hori onetsi zenetik ia hiru hilabete igaro direlarik, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten dugu:

Gobernuaren zer organo ari da prestatzen eta zertan da egungo lege eta eskumen esparruari buruzko azterlan juridiko eta ekonomikoa, esparru horrek dituen mugak eta aukerak oinarri hartuta, eta Hobekuntzaren erreformari lotutako etorkizunari begirako proposamenak?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, Esako urtegiaren egungo egoeraren gainean eta urtegia handitzeko planen eta obren gainean Gobernuak dakienari buruzkoa eta haren segurtasuna bermatzeko abiarazitako ekintzei buruzkoa.

MARÍA LUISA DE SIMÓN CABALLERO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa De Simón Caballero andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Esako urtegiaren egungo egoeraren gainean eta urtegia handitzeko planen eta obren gainean Gobernuak dakienari buruzkoa eta haren segurtasuna bermatzeko abiarazitako ekintzei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Izquierda-Ezkerrako foru parlamentarien elkarreko Marisa de Simón Caballerok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak 2017ko urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Esako urtegiko eskuineko mazelaren egoerak okerrera egin izanari buruzko azken albisteak oso kezagarriak dira; izan ere, lur-mugimenduek eragina izan dezakete urtegiaren egonkortasunari eta herritarren segurtasunari dagokienez.

Gobernuak zer daki Esako urtegiaren egungo egoerari buruz eta urtegia handitzeko planei eta obrei buruz? Zer ekintza abiarazi ditu Esako urtegiaren ardura duten erakundeen aitzinean, haren segurtasuna bermatzeko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Marisa de Simón Caballero

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak autonomia erkidegoetako lehendakarien batzarrean egindako proposamenaren ildo nagusiei buruzkoa, zeinean “hezkuntzaren aldeko itun bat Espainian” proposatzen baitzuen.

JOSÉ JAVIER ESPARZA ABAURREA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea José Javier Esparza Abaurrea jaunak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak autonomia erkidegoetako lehendakarien batzarrean egindako proposamenaren ildo nagusiei

buruzkoa, zeinean “hezkuntzaren aldeko itun bat Espainian” proposatzen baitzuen.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Unión del Pueblo Navarro (UPN) parlamentu-taldeari atxikia dagoen José Javier Esparza Abaurreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak lehendakariak erantzun diezaion:

Autonomia erkidegoetako lehendakarien azken bilera, hedabideen bidez jakin izan denez, Barcos lehendakariak eskatu zuen hezkuntzaren aldeko itun handi baten alde lan egin dadila Espainian.

Egia al da hori? Baiezkoan, zeintzuk izanen lirateke zure proposamenaren ildo nagusiak?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, jakitekoa Gobernuak inolako ekintza judizialik abiarazteko asmorik ote duen iragan sanferminetan emakume gazte baten bortxaketan ustez parte hartu zuen pertsona baten aldeko pankartak Sadar futbol-zelaian erakutsiak izan ondoren.

LAURA LUCÍA PÉREZ RUANO ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Laura Lucía Pérez Ruano andreak aurkeztutako gaurkotasun handiko galdera, jakitekoa Gobernuak inolako ekintza judizialik abiarazteko asmorik ote duen iragan sanferminetan emakume gazte baten bortxaketan ustez parte hartu zuen pertsona baten aldeko pankartak Sadar futbol-zelaian erakutsiak izan ondoren.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Laura Pérez Ruano andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarri-

takoaren babesean, gaurkotasun handiko honako galdera hau egiten du, Nafarroako Gobernuak hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

2017ko urtarrilaren 22ko Osasuna-Sevilla futbol-partidan pankartak eta elkartasun-mezuak erakutsi ziren, iragan sanferminetan emakume gazte baten bortxaketan ustez parte hartu zuen pertsona baten aldekoak.

Nafarroako Gobernuak ba al du horri buruzko ekintza judizialik abiarazteko asmorik, baldin eta foru erkidegoko Fiskaltzak gertakariak ofizioz salatzzen ez baditu?

Nafarroako Kirolari buruzko 15/2001 Foru Legeko 74. artikuluan eta Emakumeen kontrako indarkeriari aurre egiteko 14/2015 Foru Legeko 17., 18. eta 19. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak zer ekintza abiaraziko ditu kirol ikuskizunetan gisa horretako jokabideak prebenitzeko eta, kasua bada, zigortzeko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Laura Pérez Ruano

Galdera, Nafarroako Gobernua Garraioaren Hirian 48,3 milioi euro ordaintzera kondenatzen duen epaia dela eta, Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

KOLDO MARTÍNEZ URIONABARRENETXEA JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Koldo Martínez Urionabarrenetxea jaunak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Nafarroako Gobernua Garraioaren Hirian 48,3 milioi euro ordaintzera kondenatzen duen epaia dela eta, Nafarroako Gobernuak egiten duen balorazioari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

GALDERAREN TESTUA

Geroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Koldo Martínez Urionabarrenetxeak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak kontseilariak urtarrilaren 26ko Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Orain dela gutxi ezagutu den epai batek Nafarroako Gobernua kondenatu du Garraioaren Hirian 48,3 milioi euro ordaintzera. Hori ikusita,

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du? Zer urrats egiten ditu epai hori betetzeko?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Koldo Martínez Urionabarrenetxea

Galdera, Hezkuntza Departamentuan izandako azken gertaerak ikusita, Hezkuntzako kontseilariarengan dagoen konfiantzari buruzkoa.

ANA MARÍA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana María Beltrán Villalba andreak aurkeztutako gaurkotasan handiko galdera, Hezkuntza Departamentuan izandako azken gertaerak ikusita, Hezkuntzako kontseilariarengan dagoen konfiantzari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Hurrengo Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2016ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, gaurkotasan handiko honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Hezkuntza Departamentuan izandako azken gertaerak ikusita –Lehen Hezkuntzako lan eskaintza publikoak eragindako segurtasun juridikorik eza; Hizkuntzak Ikasteko Programari buruzko foru agindua, zeinak 20 egun bakarrik ematen baitizkie ikastetxeei programa hori eskaintzeko, edo eremu ez euskaldunean D eredia inposatzea, erreferentziazko ikastetxeak inolako irizpiderik gabe aukeratu–, konfiantza mantentzen al duzu Mendoza kontseilariarengan?

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba

Galdera, Osasun Departamentuaren 2015eko aurrekontuan izandako desbideratzeari buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera erretiratu izanari dagokionez. Galdera Osasun Departamentuaren 2015eko aurrekontuan izandako

desbideratzeari buruzkoa zen, eta 2016ko otsailaren 16ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Mutiloako ikastetxea handitu ordez ikastetxe berri bat eraikitzea erabakitzeko arrazoiei buruzkoa.

HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera, Mutiloako ikastetxea handitu ordez ikastetxe berri bat eraikitzea erabakitzeko arrazoiei

buruzkoa. Galdera 2016ko urriaren 28ko 125. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Ministerioak azken ebaluazioak direla-eta deitutako bilerara ez joateko Hezkuntzako kontseilariak izan zuen arrazoiari buruzkoa.

HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera, Ministerioak azken ebaluazioak direla-eta deitutako bilerara ez joateko Hezkuntzako kon-

tseilariak izan zuen arrazoiari buruzkoa. Galdera 2016ko azaroaren 18ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Hezkuntza Departamentuak NUParen Tuterako campuserako dituen planei buruzkoa.

HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera, Hezkuntza Departamentuak NUParen Tuterako campuserako dituen planei buruzkoa.

Galdera 2016ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Cintruenigoko Bigarren Hezkuntzako institutuari buruzkoa.

HEZKUNTZA BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Hezkuntza Batzordean izapidetu dadin Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko galdera, Cintruenigoko Bigarren Hezkuntzako institutuari buruzkoa. Galdera 2017ko urtarrilaren

23ko 15. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

Galdera, Nafarroako 2017-2019 aldiko II. Ekintzailtza Planak jasotzen dituen ekintzei eta helburuei buruzkoa.

GARAPEN EKONOMIKORAKO BATZORDEAN IZAPIDETZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2017ko urtarrilaren 23an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Xedatzea Garapen Ekonomikorako Batzordean izapidetu dadin Guzmán Miguel Garmendia Pérez jaunak aurkezturiko galdera, Nafarroako 2017-2019 aldiko II. Ekintzailtza Planak

jasotzen dituen ekintzei eta helburuei buruzkoa. Galdera 2016ko azaroaren 22ko 137. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2017ko urtarrilaren 23an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza